

HERRITARREN FOROAREN BILERA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko Udala
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
Data, tokia eta ordua:	2010eko urtarrilak 12 Hondarribiko Udaleko Udalbatza Aretoa 19:30
Harremanetarako pertsonak:	Ingurumena eta Agenda 21 departamentua: - Naroa Susperregi Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Aitor Gonzalez - Edurne Simón
Telefonoak:	943 111 242 (Naroa Susperregi) 943 492 215 (Izadi 21)
Helbide elektronikoa	ingurumena@hondarribia.org (Naroa Susperregi) info@izadi21.net (Izadi 21)
Gai-zerrenda:	<ol style="list-style-type: none"> 1- Etorritakoei ongi etorria 2- Hondarribiko garraio publikoaren eskaintzari lotutako berrikuntzak ezagutzera ematea 3- Bertaratutakoen zalantzak edo proposamenak 4- Herritarren Foroaren hurrengo bilerak

PARTE HARTU DUTE:

Banakako herritarrak:

- Ascen Oscoz
- Asun Yarzabal
- Marcelina Lugmany

Elkarteak, enpresak, eskola zentroak:

- ACUBI –*Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa*- (Belén Martínez)
- Amute Kosta Auzo Elkartea (Pedro Gonzalez)
- Emeki Elkartea (Estela Galán)
- Harresi Elkartea (Isabel Mayor eta Mikel Rentería)
- Indisca e Indivus (Carlos Fernández)
- Interbus (Mikel Urretabizkaia)

Erakundeak:

- Hondarribiako Udala (Gregorio Berrotaran –Landa Garapeneko zinegotzia-, Ion Elizalde –Ingurumena eta Agenda 21eko zinegotzia-, Iosu Alvarez Yeregui –PSE/EEko zinegotzia-, Isabel Olazabal –Euskara eta Hezkuntza zinegotzia-, Maiaia Urrutia –EAJko zinegotzia-, Maite Pelaez –Gizarte Zerbitzuak, Turismoa, Merkataritza eta Gazteria zinegotzia-, Maria Luisa Arija –PSE/EEko zinegotzia- eta Xabier Tife –Kultura eta Kiroletako zinegotzia-)
- Bidasoa Bizirik (Bidasoa eskualdeko garapen agentzia): Maribel Lorenzo –Bidasoa Bizirik-eko zuzendaria-.

1. Etorritakoei ongi etorria:

Hondarribiko Agenda 21en Herritarren Foroaren 2010eko lehen bilerari hasierako emateko, lehenik eta behin Ion Elizalde (Hondarribiko Udaleko Alkateordea eta Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia) etorritakoei bilerara etorri izana eskertu die. Ondoren, bileraren helburua urte honetan zehar Hondarribiko autobus zerbitzuan gertatuko diren berrikuntzen berri ematea eta, gai honen inguruan, bertaratutakoen ekarpenak jasotzea dela azaldu du. Hori egin ostean, Agenda 21en prozesuaren aholkularitza teknikoari hitza pasa dio.

Izadi 21eko Edurne Simonek laburki gogorazi du 2009ko martxoaren 12an Hondarribiko Udalbatzak udalerriko iraunkortasunerako I. Ekintza Plana onartu zuela eta orduz geroztik, Udala dokumentu horretan barneratutako edukia aurrera eramaten hasia dela, azken helburua Ekintza Planaren 7 helburu estrategikoak lortzera iristea baita:

1. Tokiko Ekonomia bizia eta iraunkorra sustatzea.
2. Biztanle guztien bizi kalitatea eta gizarte ongizatearen hobekuntza bultzatzea.
3. Udaletxeak tokiko garapen iraunkorraren aldeko jarrera eredugarria bultzatzea.
4. Hirigintza eredu iraunkor bat diseinatzea eta planifikatzea.
5. Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz asetzea.
6. Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea (bioaniztasuna eta paisaiaren babesa).
7. Hiri ingurumenaren kalitatea handitu eta natur baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzea.

Ekintza Planaren helburuetako bat, goiko zerrendan ikus daitekeen moduan, Hondarribiko biztanleen mugikortasun eta irisgarritasun beharrak asetzeari buruz ari da, beti ere, garapen iraunkorraren ikuspuntutik. Aipatu helburua lortzeko, Ekintza Planak honako jarduera programa barneratzen du: "Kalitatezko garraio zerbitzu publiko eraginkorra eta erakargarria sustatzeko programa". Programa horren edukia betetzeko, zenbait ekintza aurreikusten dira, 5.2.2 zenbakidun ekintza izanik autobus zerbitzuaren berrikuntzekin harreman zuzena duena:

E 5.2.2: Herritarren beharrei erreparatuz, Udaletik garraio publikoaren zerbitzu berriak martxan jartzea bultzatzea. Lehen tasun maila: altua.

Azkenik, badago Ekintza Planeko 2. helburu estrategikoan (*Biztanleen bizi kalitatea eta gizarte ongizatearen hobekuntza bultzatzea*) barneratuta dagoen beste ekintza bat ere, Herritarren Foroaren bileraren deskribatu zen autobus zerbitzuaren berrikuntzekin harremana ere baduena, honakoa da:

E 2.5.3: Bidasoako Ospitalera doan garraio publikoaren eskaintzari lotutako hobekuntza posibleak aztertu beste erakunde eskumendunekin elkarlanean. Lehentasun maila: ertaina.


2. Hondarribiko garraio publikoaren eskaintzari lotutako berrikuntzak ezagutzera ematea

Ion Elizalde azaldu du Hondarribiak dituen biztanleei erreparatuz, garraio publikoko autobus zerbitzuaren eskumena ez dela Udalarena, Gipuzkoako Foru Aldundiarena baizik. Dena den, gaineratu du udal konpromisoetako bat dela autobus zerbitzuaren hobekuntzak aurrera eramatea eta horregatik, azken hilabeteetan Aldundiarekin bilerak antolatu direla, gai honi buruz hausnartu eta aurrerapausoak emateko.


Aldi berean, Ion Elizalde aipatu du autobus zerbitzua eskaintzen duen enpresa berria kontratatzeko prozedura jada hasita dagoela eta prozedura horren baitan, Aldundiak Gipuzkoako ekialdean dauden eskualdeetako herriarteko autobus zerbitzuen berrantolaketarako aurreproiektua idatzi duela. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurten esleituko omen ditu garraio publikoaren zerbitzu berriak aurrera eramateko lanak. Enpresa esleipendunak 8-10 urte bitarteko lan kontratua eskuratuko du, hau da, 8-10 urtean zehar izango du Hondarribian garraio publiko zerbitzua emateko ardura. Udalak dokumentu horretan barneratzen den Hondarribiari buruzko informazioa aztertu du eta Gipuzkoako Foru Aldundira proposamenak bidaltzeko asmoa dutela gaineratu du Ionek. Era berean, proposamen horiek Aldundira bidali aurretik, Udalak herritarren ekarpenak jaso nahiko lituzke. Hori dela eta, besteak beste, Agenda 21en Herritarren Foroaren bilera deialdia egin zen lehengo astean.

Ionek azaldu duen moduan, aurreikusita dauden aldaketek autobus lineekin ez ezik (linea berriak ere sortuko dira) egun martxan dauden zerbitzuen ordutegiekin, geltokiekin eta beste zenbait asperturekin ere zerikusia dute. Hasierako azalpen hori eman ostean, autobus zerbitzu berriak deskribatu ditu:


- Hondarribia-Irun zerbitzua: 15 minutuko maiztasuna izango luke. Geltokiei dagozkion ekarpenak egiteko aukera egongo litzateke Ionon hitzetan.




- Txingudiko merkatal gunerako zerbitzua: ordu beteko maiztasuna izango luke linea honek.



- Hondarribia-Ospitalea zerbitzua: zerbitzu honek, aurrekoak bezala, ordu beteko maiztasuna izango luke. Ionek aurreratu duenez, Udalaren asmoa zerbitzua Irungo Bentas auzoraino iristea lortzea izango litzateke. Era horretan, linea hau Hondarribian hartzen dutenek aukera izango lukete garraio publikoko beste zerbitzuetara iristeko (Euskotren, Renfe) eta aldi berean, Bentas inguruetan bizi diren herritarrek, Hondarribiko erdigunera hurbiltzeko aukera izango lukete.




- Hondarribia-Donostia (herriartekoa): zerbitzuak ordu beteko maiztasuna izango luke.



- Hondarribia-Donostia (zuzena, A-8 autobidetik doana): ordu erdiko maiztasuna izango luke eta Donostian Amara auzotik sartu, erdialdetik igaro eta Kontxa pasealekutik Antigua auzoan kokatutako unibertsitateetara iritsiko litzateke (hori izango litzateke Donostiara joateko bidaiaren azken geltokia).



- Hondarribia-Donostia (erdibidekoa, lehenago Irundik igarotzen dena Donostiara joateko A-8 autobidea hartu aurretik): Irungo geltokietatik igaro ondoren, autobusak autobidea hartuko du eta Donostiako azken geltokia Gipuzkoako Plazan egongo da. Zerbitzu honen maiztasuna ordu betekoa izango litzateke.



Azalpenekin amaitzeko, Ion Elizalde aipatu du Udalak herritarren ekarpenak aztertu eta Udalaren ekarpenekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiari alegazioak bidaltzeko asmoa duela. Ondoren, Udalak autobus zerbitzu berriei buruzko komunikazio kanpaina bat egitea aurreikusten duela gehitu du.

3. Bertaratutakoen zalantzak edo proposamenak

Ionek hitza pasa die bertaratutakoei aurkeztutako autobus zerbitzuen inguruko zalantzak planteatu edo proposamenak egiteko. Honakoa izan da bertaratutakoek aipatutakoaren laburpena:

- Aireportuaren pareko geltokitik errepidea gurutzatzeko zebrabiderik ez dago, oinezkoen segurtasuna arriskuan egoten delarik: Ionek adierazi du gaia aztertuko duela Udalak, arazoari aurre egiteko zebrabide bat edo, bestela, semaforo bat jarri daitekeen ikusteko.
- Noiz jarriko dira martxan autobus zerbitzu berriak? Ion Elizalde, Maiaia Urrutiak eta Mikel Urretabizkaiak adierazi dute ekainerako edo agian beranduagorako jarriko direla martxan aipatu zerbitzuak. Izan ere, zerbitzua esleitzeko prozedurak luze joko du, besteak beste, Europako Aldizkari Ofizialean ere argitaratu behar baita lehiaketa publikoa. Une honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuaren inguruko alegazioen epean aurkitzen gara.
- Autobusaren goizeko lehen zerbitzua aurreratzea (alegia, lehenago hastea): goizeko lehen zerbitzua hartuaz zenbait herritarrek ez dute aukera izaten beste garraio mota batzuetara garaiz iristeko (adibidez, Irunen kokatutako tren zerbitzuak), hortaz, alternatibetako bat Hondarribiko goizeko lehen zerbitzua zerbait lehenago hastea izan daiteke. Ionek erantzun du proposamena aztertuko dutela bere bideragarritasuna ezagutu ahal izateko.
- Autobusen egoera hobetzea (autobus modernoagoak erostea, daudenengatik ordezkatzeko) eta autobidetik joango liratekeen autobusak bideak eskatzen duen segurtasun neurriekin bat etortzeko egokitzea: Ionek adierazi du zerbitzua kontratatzeke lehiaketaren pleguetan hori jada aurreikusita dagoela.

4. Herritarren Foroaren hurrengo bilerak

Foroari amaiera eman aurretik, Izadi 21eko Eburnek bertaratutakoei adierazi die aurrerago herritarren fororako bilera deialdia jasoko dutela, Hondarribiko iraunkortasunerako I. Ekintza Plana nola garatzen ari den ezagutzera emateko eta baita urtean zeharreko Agenda 21en plangintzaz ere hitz egiteko.

Honenbestez, bilera 20:30tan amaitu da.